

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anparo Larzabal Urdanpilleta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Añorgako Txarabategi baserrian jaioa. Aita bertakoa zen, eta ama Zubietakoa. Bost senide ziren, lau neska eta mutil bat. Añorga Txikiko eskola publikoan ibili zen Anparo, eta gero baita klase partikularrak hartzen ere, urtebetez. Josten ere ikasi zuen. Baserriko lanetan ibili zen umetatik; oso gazterik hasi zen San Martin plazara joaten ere, tratuarekin. Esnea partitzen zuen etxez etxe. Añorgako Bidarte baserrira ezkondu zen. Lau seme izan zituzten.

Zintak

DON-112

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-28
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. 11 urterekin eskola utzi beharra, etxean laguntzeko

- **Erref:** DON-112/004
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Lau neska eta mutila ziren. Neskamea noiz ekarri zuten. Ama kalera joaten zen, tranbian, tratuarekin. 11 urterekin utzi zion eskolara joateari, etxean laguntzeko. Babarrunak erre egin zitzaizkion. Urtebete "señorita"-rekin, partikularra. Añorga Txikin ibili zen eskolan. Neskak eta mutilak aparte. Errezoak.

2. Eskolak erdaraz

- **Erref:** DON-112/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:05:29. **Bukatu:** 00:07:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Eskolak erdaraz izaten ziren. Maistrak nolakoak ziren. Zer ikasi zuen. Rezolako emakumeei gau eskola ematen zieten. Eskola partikularra.</p>

3. Jolas gutxi umetan

- **Erref:** DON-112/006
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:07:08. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Umetako jolasak: tabak (tortolosak), sokasalto. Etxean beti zuten lana, ume-umetatik, eta kalean erdaraz egin beharrak (eta ondo ez jakiteak) lotsarazi egin zituen. Ezkondu zenean, behiekin atera zuten bizimodua. Orain ezin da.

4. Ama San Martin azokara, tratuarekin

- **Erref:** DON-112/007
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Astoarekin joaten zen ama Añorgara, eta handik autobusean Donostiara. Zesterak. Etxez etxe esnea partitzen; parrokia. Lau marmita. San Martin azokan postua. Partiketa nola egiten zuen. Berdura. Jaietan, mezetara. Marmita ostu zioten behin.

5. Igandetán esklabetara eta handik Irubidera

- **Erref:** DON-112/010
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:18:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Mariatarren alaben kongregazioa. Zintzo ibili beharra zuten orduan. Esklabetara bidali zuen amak, igandeetan arratsalde-pasa. Handik Irubidera joaten nola hasi ziren, ezkutuan. Dantza soltea. Etxe-laguntza.</p>

6. Arrosarioa eta letaniak

- **Erref:** DON-112/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:19:52. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Zintzo ibiltzen ziren lehen. Ezkondu zenean, egunero arrosarioa. Aitonak (senarraren aitak) letaniak esaten zituen, eskaileretan belauniko jarrita. Hiru arreba moja zituen.

7. Gerra garaian, betiko bizimoduarekin jarraitu zuten

- **Erref:** DON-112/015
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:24:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Idi bakarra zuten. Egunero pentsu bila joaten ziren Errekalderra. Gerra ondoan ez zuten goserik pasatu, amak beti ekartzen zuelako txanponen bat azokatik. Beheko sokora joan ziren bonbak hasi zirenean, gerran. Amak kalera joaten jarraitu zuen.

8. Astoa eta idia, lurra lantzeko

- **Erref:** DON-112/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Astoarekin eta idiarekin lantzen zuten lurra. Uztarri txikiarekin. Azenarioa. Alfalfa.

9. Oiloak, artoa eta irina

- **Erref:** DON-112/019
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:28:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Oilo batzuk ere izaten zituzten, libre. Artoa eta babarruna. Artoa aletu eta Hernanira joaten zen ostegunetan autobusez, irina egitera. Gerra ondoan.</p>

10. Txerria hiltzen zuten urtero

- **Erref:** DON-112/021
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:32:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Gerra ondoan ez zuten goserik pasatu. Txerria urtean behin hiltzen zuten. Bidarteko aitona ibiltzen zen txerria hiltzen; puskarik onena hari ematen zioten. Gazitu. Odolkiak. Espezieak botatzen zitzaizkien. Hesteak garbitzera, errekarara. Arropa garbitzera ere errekarara joaten ziren. Gero aska jarri zuten.</p>

11. Ura ez zen asko edaten, pitarra bai

- **Erref:** DON-112/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:32:16. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa garbitzeko Lagarto xaboia erabiltzen zuten. Ur hotza. Iturrira joaten ziren ur bila, baina ez zen ur askorik edaten. Pitarra edaten zuten. Auzoan bazegoen dolarea, eta han egiten zuten pitarra.

12. Karga astoan eta buru gainean

- **Erref:** DON-112/024
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:34:24. **Bukatu:** 00:36:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Kalera joaten hasi zenean, goiz jaiki behar. Astoarekin jaitsi, zestoa autobusera sartu... Buru gainean jartzen zuten zestoa, marmitekin. Behin astoak amari zer egin zion kontatzen du.

13. Menda-belarra eta artilezko koltxoak

- **Erref:** DON-112/026
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:36:44. **Bukatu:** 00:38:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Garbitasuna egiteko, erratza eta menda-belarra. Zoko usaina. Artilezko koltxoak; barrukoa atera, eta astindu egin behar ziren.

14. Josten ikastea ondo etorri zitzaion gero

- **Erref:** DON-112/028
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Sukalde lanetan ez zen asko ibili. Jostera joaten zen, Joxepa jostunarengana; mozten ere ikasi zuen. Gero umeei berak egiten zizkien arropak.

15. Umeen jaiotza eta atsolorrak

- **Erref:** DON-112/029
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:40:20. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Ospitalean izan zituen umeak, lehenengoa Residentzian eta besteak partikularretik, Koruko ospitalean. Atsolorrak. Meriendatzera joandako auzoko emakume bat zorabiatu egin zen, eta handik bi egunera hil. Atsolorra nolakoa izaten zen.</p>

16. Jaio eta segituan, bataioa; elizan sartzea

- **Erref:** DON-112/030
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:46:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Umea jaio eta segituan bataiatzen zuten. Ospitaletik bueltan, elizan geratu eta umea bataiatu (ama kanpoan geratzen zen); ondoren, apaizak bedeinkazioa ematen zion amari. Purifikatu. Elizan sartzea. Umeen izenak nola pentsatu zituzten.</p>

Transkripzioa

-Bataiyatu iten zan...

-Segitun!

-Segitun, ezta?

-Bai, nik handikan, klinikatik etxeakuan... biarrena, biarrena oso haundiya jaiyo zan, ta /da/ harrekin gehiyo pasa nun, denboa; "cinco cien" jaiyo ziten eta...

-Buf. Haundiya benetan.

-Bai. Eta harrekin gehixeo pasa nun, baiño gaiñontzian, e: gaur izan ta handik bi eunea etxea etortzen nitzan, ta etxeakuan, umia bataiyatu, neoni elizan sartu ta "ya está", bukatu giñun gue festa.

-Eta umia bataiyatzeakuan zu... zu ere sartzen ziñan elizan, ala ez?

-Ez, kanpuan.

-Ta nun geratzen ziñan?

-Kanpuan, han, portalian o nunbaiten.

-Eta zergatik ezin ziñan sartu?

-Ba "la purificación me faltaba".

-Hori zer da, "elizan sartzia" edo...?

-Ba...

-Nola esaten zitzaion horri?

-E?

-"Elizan sartzia" edo nola deitzen zitzaion?

-Klaro, ez nengolako garbituba, Jaungoikuan grazikin ez nengolako garbituba. Familiya izandu nun ta, ba "pues otro eso".

-Eta orduan apaizak bedeinkapena eman behar izaten zun...?

-Bai.

...elizara sartzeko?

-Bai.

-Eta bataiyatu eta gero...

-Nei eman zian, ematen zian.

-Orduan ematen zizun?

-Bai. Umia bataiyatzen zan lenbizi, eta geo ni sartzen nitzan. Geo nei iten

zian.

-Eta umia nork eramaten zun eliza barrura, bataiyatzeko?

-Patrino-madrinuak eta.

-Eta nola aukeratzen ziran? Familiakuak izaten ziran normalian?

-Klaro, familikuak.

-Eta umian, umian izena pentsatzeko...

-Umian izena ba... guk geonek pentsatu giñun, gizona ta biyok. Ta

lenbizikuai jarri giñun biyona: ni Maria Anparo naiz ta Juan: Juan Mari.

Bestia, berriz, aittonana: Joxe. Bestia zan hemengo semia hil... zea, bueno,

Manuel zan, Manuel. Eta esan giñun aittonai nola jarri bihar giñun izen hoi,

eta esan zian /esantzian/: "Ez, horrek, suerte txarra du etxe hontan", esan

zian /esantzian/. Eta hala. Hoi esan zun /esantzun/ baiño guk jarri giñun.

Zeatikan anaiya hilla zun, ne gizonak'e beste anaiya bai, izen hortakuak,

eta hoi esan zigun /esantzigun/ eta geotzikan majiña bat bider goatzen zait

harrek esan zuna /esantzuna/. Ta hola. Ta txikiya, berriz, Luis da; San Luis

eunian jaiyo zan.

17. Ama, neskame ibilia

- **Erref:** DON-112/034
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:48:12. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Ama neskame ibilia zen, zuzen bizitua. Antiguan jarri ziren bizitzen, baserrira joan aurretik. Baserri zahar-zaharra zen. Behiak biltzen ez zekien amak, baina ikasi zuen. Oso langilea zen.

Transkripzioa

Nere ama're oso zea zan, neskame-ta ibiliya. Ta etxekoandre ba emen zun /ementzun/ hola... zea, hain zuzena emen zan /ementzan/ ta ohiyan azpia jutun emen zan /ementzan/ ta hola: bihetza pasa ta geo hautsa eakusten emen ziyon /ementziyon/. Ta hola, zuzen-zuzen bizituba. Eta geo gue aittakin o zeatu da ta... attak zun baserriya. Ta ordun attak ba Aiyetetik pasiatzen-ta /da/ ai zala eakusten emen ziyon /ementziyon/ etxia beria nun zun /nuntzun/. Baiña ez emen ziyon /ementziyon/ esaten behin'e basarria jun behar zunik /behartzunik/. Eta hala, kalia jarri emen zian /ementzian/, Antiguan, bizitzen. Baiño aitta maliziyakin ba alki... zean, maixterra jarriya emen zekan ba, etxian. Zemat, zemat urteko ta... juxtu-juxtu ba beak pentsatuba: "Hau ateatzian jungo gatxik" ta hola. Eta Antiguan. Ta geo hua maixterra jun zanian /juntzania/ ba, ba beak'e hara jun basarria. Ta basarriya xar-xar-xarra. Ta eundokua, gue amak eundokuak sufritu biha izan dittu aurretik. Xar-xar-xarra, ta geo hara. Ba ta... geo behiyak biltzen 'e ez baitzekin, amak. Nik'e ez nekin, baiño, behiyak biltzen ezta. Geo aita feria ta jutun emen zan /ementzan/, osteunetan, eta geo etxea etortzia're haztu askotan. Behiya bildu bihar zula /bihartzula/. Ta geo baten bat jungo zan, ta hurrena bestia, ta. Ya behintzat etortzen ez, eta geo garaiya bakizu, behiyak garai batian bildu bihar baitia. Eta hala pixkana-pixkana hasi emen zan /ementzan/ bea, ta geo behiyak biltzen, ikasi ta... Holaxe zan bizimodua leno.

-Zuen ama oso langillia zan, ezta?
-Bai. Oso langillia zan, oso gogorra zan.

18. Dutxarik ez zegoen lehen

- **Erref:** DON-112/036
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:50:43. **Bukatu:** 00:51:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Komuna. Lababorik eta dutxarik ez. Zinkezko baldean garbitu behar. Komuneko paperik ez zegoen.

19. Eguzkiari eta ilargiari ematen zitzaion garrantzia

- **Erref:** DON-112/038
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:54:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Arbia abereentzat. Ganaduaren azpiak egiteko, zakarra. Segarekin mozten zuten belarra senarrak eta haren aitak. Eguzkiari eta ilargiari ematen zitzaion inportantzia. Orain eguraldiari begiratzen zaio gehiago.

20. Soroen bedeinkazioa eta erramua

- **Erref:** DON-112/039
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:54:53. **Bukatu:** 00:56:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Soroak urtean behin bedeinkatzen zituen apaizak. Bedeinkatutako erramua jartzen zuten, orain ere bai. Ekaitza zegoenean, kandela pizten zuten. Karmengo Ama Birjina etxez etxe ibiltzen zuten.

21. Dena bekatua zen garai hartan

- **Erref:** DON-112/042
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:58:00. **Bukatu:** 00:59:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Dena bekatua zen lehen, mutilei musu ematea ere bai. Etxean ez zieten sexuari buruzko azalpenik ematen. Baina animaliak ikusita, pentsatzen zuten nola izan zitekeen.

Transkripzioa

-Bai, bai, dana pekatua zan leno. Muxu, mutil bateri muxu ez zekazun / etzekazun/ ematia ordun. Ezkondu arte´e ez zekazun /etzekazun/ emateik. Ezkondutakuan libre gelditzen ziñan, baiño bestela ez.

-Eta lehen ez zan, e, hitz eiten sexua eta holako kontuak eta...

-A ez, hoi ez.

-Eta ez zan /etzan/ holakorik aipatzen, ezta?

-Ez.

-Eta etxian ematen zuten esplikaziyorik? Ez dakit, zer esaten zuten umetan: ume bat jaiyo zanian, nola... nundik etorriya zan edo?

-Ez. Gui amak ez ziun /etziun/ ezer eakutsi holakoik...

-Umia jaiyotzen zanian...

-Hoi, hoi komeni da jakitia, e. Leno behintzat... dana pekatua zan ta /da/ hola ebitatzen zan, baiño gaiñontzian hoi gauza...

-Eta ume...

-Gaztia gaztia izaten da /izatea/ ta...

-Zuek umetan ze pentsatzen zenuten, umiak Paristik zetoze?

-Ez.

-Ez. Hori... ez zuten ezer esaten?

-Ez. Hori, holakoik ez zan /etzan/, Parisik eta holakoik.

-Ez?

-Baiño ze imajinatzen zendun zerbait. O... milla gauza pasatzen dia / pasatzeiya/.

-Gaiñera, bueno, baserriyetan...

-Animaliya´re ikusten zendun.

-Klaro. Gaiñera, zezena euki ezkerro etxian...

-Bai.

-...ez?

-Bai, gauzak pentsatu iten dituzu /iteituzu/.

22. Lehen askatasun gutxiegi eta orain gehiegi

- **Erref:** DON-112/046
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:02:01. **Bukatu:** 01:02:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Kantatzeko astirik ez zuten, beti lanean. Pobrea zen lehengo bizimodua, baina orain gehiegizko askatasuna dagoela iruditzen zaio.

23. Aita siestan, beraiek lanean

- **Erref:** DON-112/047
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:02:55. **Bukatu:** 01:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Irratirik, telefonorik eta telebistarik ez zuten. Aitak siesta egiten zuen, amak ez; bitarte horretan egiten zituen lanak.</p>

Transkripzioa

-Ta zuek radiyorik bazenuten etxian?

-Ez.

-Ez? Eta telefonorik ere ez zan /etzan/ izaten...

-Ez. Ez telefonoik, ez radiyoik... telebisiyoik´e ez, hemen ez zan /etzan/.

-Eta ez dakit, hola... atsedean hartzeko, deskantsatzeko momentuetan ze, ze iten zenuten? Deskantzurik ez zan izaten?

-Noiz deskantzatu biha zenun? Bazkaldu ondorengian? Siesta?

-Siesta. Siesta iten zenuten?

-Ez.

-Ez?

-Aittak iten zun siesta. Nere aitak. Amak´e ez zun /etzun/ iten.

-Eta zuek ere ez?

-Ez. Esan dizut pa: hua juten zan... pentsa zazu ze, ne amak asko zeatu zun gaixuak. Kalea etortzen zan, kalea juten zan. Geo handik etortzen zan, bazkaldu ta gui, e... guri bazkaiya eman ta han iten zitun, ta hango zeak indakoan... Ba aittak ebartian eamaten ziyon, eamaten zun zeakin... idiyakin zeara. Lera izaten zan, ta /da/ han barrika bat jarri ta pixa, ikuilluko pixa, ganaduna, eamaten zun baatzaa. Ta han uzten zun, ta gure amak, ba hoi, bazkaldu ta iten zunian, juten zan hara, eta hua partitzen gu. Harrek xulua in ta guk pixa bota. Aitak siesta in bitartian hoi iten genun, hoi iten zun aitak, o amak. Ta geo, handik aurrea, berdura bildu, edozer gauza, beti zeon lana. Baiño, ta gu harri seika ibiltzen giñan. Ta aitak beti siesta.

24. Baserriko otorduak

- **Erref:** DON-112/048
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:04:34. **Bukatu:** 01:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Otorduak. Kafesne-zopak, gosaltzeko. Hamaiketakorik ez zuten egiten.

Bazkaldu, ama kaletik etortzen zenean, babarrunak. Txerrikiak. Bakoitzak bere plateretik. Merienda, txokolatea eta ogia. Afaltzeko, tortilla edo. Goserik ez. Sagarrekin diru asko ateratzen zen plazan.

Transkripzioa

-Eta otorduak: gosariya ta... zer gosaltzen zenuten?
-Ba guk kafesne-zopak.
-Zopak? Esne zopak?
-Esnia ez, kafesnia.
-Kafesnia. Eta gero hamaiketakua ere in beharko zenuten, hainbeste lan inda gosetu...
-Hamaiketakoik ez zan /etzan/ iten, emakumia!
-Ez zan /etzan/ iten?
-Hamaiketakua ze in behar zendun, oain bezela hamaiketakua?
-Gazta pixkat o...
-Ez, ez, ez. Holakoik ez zan /etzan/ iten.
-Ez? Bazkalordura arte, orduan, ezer?
-Ezer ez.
-Kafesne-zopakin bazkalordura arte.
-Bai, bai.
-Eta bazkaldu ze ordu ingurutan iten zan?
-Ba ordu bata aldian-o, ama etortzen zanian kaletikan.
-Eta bazkariya, babarrunak askotan?
-Bai, gehiyenian babarruna. Geo, "pues" haragi puntta bat eo [...], zer zan / zertzan/. Txerriya hil bagenun, txerriyan gorabeherak eta. Geo amak ekartzen zun haragi pixkat falta zanian ta... Eta hola. Arraultzak ´e bagiñun ta /da/ "pues" listo.
-Eta danak batetik jaten zenuten ala bakoitzak bere platerian?
-Bai, platerian hartuta. Platea atera, ta geo platerian.
-Eta, e, igandetana-eta bazkari bereziya?
-Ez, apartekoik ez.
-Garbantzua-eta ez zan izaten igandetana?
-Zopa-ta bai, baiño... behintzat. Garbantzua ere bai...
-Eta gero merienda ingo zan.
-Merienda bai, txokolatia ta ogiyo-ta, hoi bai. Merienda bai.
-Eta afaltzeko, zer?
-Zana! Tortilla eo, arrautza prejituba eo, gehiyenian hola, holako gauzak. Goseik ez genun pasa, goseik ez. Guk gerra ondorenian batzuk gosia pasatu zuela esaten due /esatedue/ baiño guk goseik ez. "Según" ze tokitan o gosia, baiña gue amak, kalea juten zan, eta beti... ez gendun / ezkendun/ ezerren faltaik izaten.
-Eta gaztainak eta intxaurrak eta? Halakorik?
-Gaztaiñak eta intxorrak eta ba bagiñun, baiño asko ez genun /ezkenun/ hoitakua ´re. Hor txanpona hartzeko eamaten zitun batzuk eta. Zerbait, zuna ta: fruta eo sagarra, eo udaria, udaria. Sagarra ´re bagendun guk hola ona jateko. Ta hua ere bildu iten gendun etxea, gaiñetik hartu ta bildu, eta etxian euki eta geo egubarritan saltzen zun plazan, ta /da/ ordun haikin diru asko hartzen zenun. Ta hola. Beti ba zakazunakin, ba... Beti o plazan ezaguna ta ba alde iten zan ta. "Pues" bueno.

25. Ur bedeinkatua

- **Erref:** DON-112/052
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:09:05. **Bukatu:** 01:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ur bedeinkatua ekartzen zuten elizatik. Orain ere ekartzen du botila bat. Zertarako erabiltzen duen.

26. Rezola lantegian baserritar gutxi

- **Erref:** DON-112/056
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:11:59. **Bukatu:** 01:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere aitonak bitan partitu zuen etxea, erdia aitarentzat eta erdia arrebarentzat. Rezolan baserritar gutxi egiten zuten lana. Ez zuten lantegiak auzoan antolatutako ekintzetan parte hartzen. Añorgako festetan bai.

27. Rezolako nagusiari berorika

- **Erref:** DON-112/057
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:14:20. **Bukatu:** 01:15:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Rezolako nagusia egunero mezetara joaten zen. Aita, porlana behar zuenean, kanpoan zain egoten zen, eskatzeko. Erreberentzia egiten zion hitz egin aurretik. Berorika, apaizari bezalaxe. Hika ez dute erabili etxean.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com